

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGEOA

Estatuen aldaketaren behin betiko onespena

Urbide Arabako Ur Partzuergoaren batzar orokorrak, 2022ko urriaren 27an egindako bilkura berezian, estatutuak aldatzeko prozedura hastea erabaki zuen, eta hasierako onespena ematea, lehendakariaren proposamenean jasotako baldintzetan eta hedadurarekin.

Batzar orokorrak 2022ko urriaren 27ko bilkuran hartutako erabakiak betez, Urbideko lehendakariak azaroaren 18ko 63/2022 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez hasiera eman baitzitzaion Urbide Arabako Ur Partzuergoaren estatutuak aldatzeko prozedurari.

2023ko apirilaren 3ko ohiko bilkuran, Urbideko Gobernu Batzarrak estatutuak aldatzeko proposamen zehatza onetsi zuen, honako hauen arabera: "estatutuak aldatzeko proposamena justifikatzen duen testua eta aldatu eta indargabetu beharreko manuen zerrenda" eta "aldatu edo sartu beharreko manuen testua". Testu horiek Urbideren estatutuak aldatzeko prozedura hasi zuen lehendakariaren azaroaren 18ko 63/2022 Ebazpenean daude jasota. Gobernu batzarrak onetsi zuen, halaber, estatutuak aldatzeko proposamen zehatza batzar orokorrari aurkeztea, hark behin betiko onespena eman ziezaion.

Azkenik, 2023ko maiatzaren 31n egindako bilkura berezian, Urbideren batzar orokorrak honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Onestea Urbide Arabako Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketa, honako hauen arabera: "estatutuak aldatzeko proposamena justifikatzen duen testua eta aldatu eta indargabetu beharreko manuen zerrenda" eta "aldatu edo sartu beharreko manuen testua", zeinak Urbide Arabako Ur Partzuergoaren estatutuak aldatzeko prozedura hasi zuen lehendakariaren azaroaren 18ko 63/2022 Ebazpenean baitaude jasota.

Bigarrena. Onetsitako estatutu aldaketa ALHAOn argitaratzea, eta horren berri ematea dagozkien erregistro ofizialei.

Hirugarrena. Partzuergoko erakunde kideei jakinaraztea, estatutuen 47.9 artikuluan xedutakoari jarraituz, ezen haien gobernu organoek estatutu aldaketa hau ez berrestea edo gerora onestea ez dela inola ere izango aldaketa eraginkorra ez izateko edo indarrean ez jartzeko arrazoia, eta, onesten ez badute, erakundeek erabaki beharko dutela dagozkion administrazio edo jurisdikzio errekurtsioak aurkezten dituzten edo partzuergotik irteten diren.

Hori dela eta, aipatutako erabakia betez, ALHAOn argitaratzen da, bai eta Arabako Ur Partzuergoaren estatutuen testu osoa ere, idazketa berrian:

I. KAPITULUA IZAERA ETA XEDEAK

1. artikulua. Partzuergoa eratzea eta egungo jabetza

1. Armiñongo, Berantevillako, Erriberabeitiko eta Zambranako udalek, eta Armiñongo, Berantevillako, Estavilloko, Lacervillako, Ozioko, Zabalateko, Ribabellosako eta Zambranako kontzejuek, Arabako Foru Aldundiarekin batera, osatzen dute ur partzuergo hau, indarrean dagoen legeriak aitortzen dien ahalmenari jarraikiz, haien eskumeneko azpiegiturak eta zerbitzuak batera ezarri eta ustiatzeko, estatutu hauen seigarren artikuluan jasota dauden helburuak betetzeko xedez.

2. Partzuergoari beste erakunde batzuk atxikiz gero, ez da estatuturik aldatu behar izango.

Partzuergoko presidentek kideen zerrenda eguneratua izango du, batzar orokorrak hartzen dituen erabakiak aplikatzeko –sartzeari eta irteteari buruzkoak–.

3. Arabako Foru Aldundiaz gainera, estatutu hauen 6. artikulua 2. atalean jasotzen diren zerbitzuetako batzuk benetan ematen dituzten kontzejuak eta udalak baino ezin izango zaizkio partzuergoari atxiki.

4. Partzuergoak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu lurralde historikotik kanpoko beste erakunde batzuekin, uraren kudeaketa integralarekin lotutako zerbitzuak emateko.

2. artikulua. Partzuergoaren izena eta egoitza

1. Partzuergoaren izena “Arabako Ur Partzuergoa – Consorcio de Aguas de Álava” da. Izena aldatzeko, ez da beharrezkoa izango estatutuak aldatzea.

2. Partzuergoaren egoitza honako helbide honetan dago: Foru kalea 11, 01213 Ribabellosa, Araba.

3. Partzuergoak beste administrazio egoitza edo egoitza tekniko batzuk ezarri ahal izango ditu lurralde historikoko beste leku batzuetan.

3. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoak

1. Partzuergoa zuzenbide publikoko erakundea da, elkarte izaerakoa eta borondatezkoa; administrazio publikoek eta, hala badagokio, irabazteko xederik gabeko erakunde pribatuak osatzen dute, betiere lehenengoen xedeekin bat datozen interes publikoko helburuak betetzen badituzte.

2. Partzuergoak berariazko nortasun juridikoa eta berezia dauka, eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa du; beraz, ahalmena izango du era guztietako ondasunak erosi, eduki, aldarrikatu, trukatu, kargatu eta besterentzeko; kontratuak egiteko; estatutu hauetan ezartzen diren zerbitzu publikoak eta gerora bere eskumenekotzat hartzen dituen zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko; hitzemateko; ezarritako errekurtsioak aurkezteko; legeetan jasota dauden ekintzak egiteko; langileak kontratatzeko, eta indarreko legeriaren arabera ematen zaizkion gainerako ahalmenak baliatzeko.

3. Partzuergoa osatzen duten erakundeek partzuergoaren bidez egikaritzen dute haien eskumena, baina eskumenaren titulartasuna erakundeena izango da. Partzuergoak partzuergoko kide diren udalak eta kontzejuak ordezkatzeko dituen helburuak lortzeko, eta horretarako behar diren ondasun eta eskubideen titularra izango da.

4. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 120 eta 124. artikuluetan eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 106. artikulua 5. apartatuan xedatzen dutenari jarraikiz, partzuergo hau Arabako Foru Aldundiari atxikitzen zaio legez ezarritako ondorioetarako.

Atxikimenduan aldaketarik bada, arrazoia edozein dela ere, partzuergoaren estatutuak aldatu beharko dira, gehienez ere sei hilabeteko epean, atxikimendua aldatu zeneko aurrekontu ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik aurrera zenbatuta.

4. artikulua. Partzuergoaren lurralde eremua eta iraupena

1. Partzuergoaren lurralde eremua erakundea unean-unean osatzen duten kontzejuena izango da, partzuergoak ematen duen zerbitzuaren hartzaile edo onuradun badira, bai eta partzuergoak zerbitzua ematen duten udalen udal mugartea ere, bi kasuetan, Arabako Lurralde Historikoaren barruan.

2. Partzuergoak erakundeei, pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei eman ahal izango die zerbitzua, nahiz eta partzuergoa ez osatu edo, partzuergoko kide izan arren, bigarrenak agindutako zerbitzuez kanpokoak jasotzeko, betiere hitzartutako zerbitzuak partzuergoa osatzen duten erakundeetako erabiltzaileentzat behar bezala eta eraginkortasunez beteko direla bermatzen bada aurretiaz.

Partzuergoak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu lurralde historikotik kanpoko beste erakunde batzuekin, uraren kudeaketa integralarekin lotutako zerbitzuak emateko.

3. Partzuergoa epe mugagaberako eratzten da eta bere helburuak bete behar dituen artean iraugo du, ez bada bat-batean lehendik zeuzkan jarduerak eta baliabideak helburuak betetzeko ezin baliaturik geratzen dela, edo partzuergoa desegiteko inguruabar bereziak gertatzen direla, edo ez dagoela kidegurik lege ezarritako gutxieneko erakunde kopurua.

5. artikulua. Araubide juridikoa

1. Partzuergoaren antolamendua, jardunbidea eta araubide juridikoa estatutu hauetan eta ondorengo manuetan ezarritakoei egokituko zaizkie:

– 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa -118 eta 127. artikulua, eta 97. artikulua, likidazioari dagokionez, eta bederatzigarren xedapen gehigarria-

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, aplikatu beharreko araubide juridiko eta administrazio prozedurari dagokienez.

– Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

– Legeak garatzeko autonomia erkidegoko araudia eta foru araudia.

– Kode Zibilean sozietate zibilari buruz ezarritakoa, banantzeko, desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko eskubidearen araubideari dagokionez.

– 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa.

– Osagarri gisa, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta 27/2013 Legea, abenduaren 21ekoa.

– Toki erakundeei aplikatu dakizkiekeen gainerako legeak eta arauak xedapenak, eta uraren ziklo integralari lotutako zerbitzu publikoak emateari buruzko xedapen sektorialak.

2. Batzar orokorraren eta gobernu batzarraren erabakiek eta partzuergoko lehendakariaren ebazpenek administrazio bidea amaiazaraziko dute.

3. Partzuergoko organoen erabakiak eta ebazpenak berehala betearazi beharrekoak izango dira, goragokoen onespena edo baimena behar denean izan ezik.

6. artikulua. Partzuergoaren helburuak

1. Partzuergoaren helburuak hauek dira: ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoen azpiegitura ezartzea eta horren ustiapena kudeatzea, esanahirik zabalenean, hori guztia baldintza egokietan eginda eta indarrean dagoen legeria betez.

2. Estatutu hauen ondorioetarako, partzuergoak uraren ziklo integralari zuzenean lotutako zerbitzuak emango ditu honako alderdi hauei dagokienez:

a. Ur hornidurari dagozkion zerbitzuak, hau da, "adukzio" zerbitzuak (edo lehen mailako sareari lotutakoak) eta "banaketa" zerbitzuak (edo bigarren mailako sareari lotutako hornidura zerbitzuak).

a.1. Lehen mailako sareko ur hornidura, goi hornidura edo adukzio zerbitzua: hartze funtzioa, biltegiatzea, garraioa, tratamendua eta azken erabiltzaile handiengana edo banaketa sareko biltegi nagusietara eramatea.

a.2. Bigarren mailako sareko ur hornidura, behe hornidura edo banaketa zerbitzua: lehen mailako sarean hornitutako ura andeletan biltzea eta hodian bidez banatzea azken erabiltzaileen instalazio pribatuak (etxebizitzak, saltokiak, industriak eta gainerako establezimenduak) lotzen dituzten harguneetarako.

b. Saneamenduari dagozkion zerbitzuak, hau da, "intertzeptazioa/arazketa" (saneamendua lehen mailako sarean) eta "estolda sare" (saneamendua bigarren mailako sarean).

b.1. Saneamendua lehen mailako sarean edo intertzeptazio eta arazketa zerbitzuak: kolektore eta hodi biltzaile nagusiak (hots, estolda sare hondakin uren araztegiekin lotzen dituztenak), arazketa sistemak (ura arazteko eta hondakinak kentzeko instalazio guztiak aintzat hartuta), eta hustubideak (araztutako ura ur ingurune hartzailera itzultzen dutenak).

b.2. Saneamendua bigarren mailako sarean edo estolda sare: etxeko eta industriako hondakin urak eta euri ura jasotzen ditu etxeetako zein industrietako harguneetatik edo estolda zulo eta hustulekueetatik eta lehen mailako saneamendu sarean isurtzen ditu edo, hala badagokio, ur ingurune naturalean.

7. artikulua. Ahalmenak

1. Helburuak betetzeko, oro har, honako administrazio ahalmen hauek egikaritzea izango du partzuergoak, legez ezarritako baldintza-norainokoetan:

- a) Araudiak ezartzeko eta bere burua antolatzeko ahalmena.
- b) Finantzak kudeatzeko eta tributuoak ezartzeko ahalmena, baina ez zerga izaera duten tributuoak ezartzekoa.
- c) Programatzeko edo planifikatzeko ahalmena.
- d) Legezketasunaren presuntzioa eta egintzen bete beharrekotasuna.
- e) Egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalmena.
- f) Desjabetzeko ahalmena.
- g) Nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalmenak.
- h) Bere ondasunak ikertzeko, mugatzeko, maizterrak administratiboki kaleratzeko eta ondasunak ofizioz berreskuratzeko ahalmena.
- i) Bere ondasunak eta eskubideak enbargaezinak izateko ahalmena, bai eta Toki Ogasunak bere kredituetarako onetsita dituen lehentasun, lehenespen eta gainerako prerrogatibak ere, Foru Ogasunari eta Estatukoari dagozkionak eragotzi gabe.

2. Partzuergoak honako hauek egin ahal izango ditu, besteak beste:

- a) Indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen laguntza ekonomikoak eta teknikoak eskatzea eta eskuratzea Europako administrazioari, estatukoari, autonomia erkidegokoari eta foru administrazioari, bai eta administrazio horiekin guztiarekin hitzartutako beste laguntza batzuk ere.
- b) Edateko ura biltzeko, banatzeko nahiz hornitzeko eta hondakin uren saneamendua, arazketa eta isurketa egiteko emakidak eta baimenak eskatzea eta eskuratzea.
- c) Hornidura eta saneamendua bideratzeko eta zerbitzuak ustiatzeko beharrezkoak diren inbertsioak finantzatzeko lanak egitea.
- d) Proiektuak prestatzea eta azpiegiturak ezartzeko eta mantentzeko obrak egitea, dagozkien plangintzen arabera.
- e) Hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzea.
- f) Ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuen tarifak ezartzea.
- g) Udal eta administrazio batzar interesdunen eskariz, kobrantzak kudeatzea.
- h) Tokiko sareetan, ur banaketa eta saneamendua bideratzeko aholkularitza teknikoa ematea.
- i) Aurreko artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren ondorioz beharrezkoak diren jarduketa guztiak egitea.

j) Ordenantzak edo araudiak onestea, partzuergoaren beraren jardunbidea arautzeko edo helburuetan agertzen diren zerbitzugintza arautzeko.

k) Partzuergoak ematen duen zerbitzuari dagozkion berariazko proiektu eta jarduketak gauzatu eta interes publiko eta orokortzat jotzeko, desjabetze espedienteak izapidetu eta onetsi ahal izango ditu, legeak eginbide hori aitortzen dionean eta, nolana ere, beste administrazio batzuek izapidetu eta onar ditzatela eta, espedientean, partzuergoa onuradun izan dadila eskatu ahal izango du.

l) Ur hornidurari eta saneamenduari lotutako beharrianak aztertzea eta egoki irizitako plan eta proiektu guztiak egitea.

8. artikulua. Kudeatzeko modua

Partzuergoak eman ahal izango ditu, bere burua antolatzeko duen ahalmena baliatuz, toki araubidearen inguruko legeriak zerbitzu publikoetarako ezartzen dituen kudeaketa moduetako edozein aukeratuta.

9. artikulua. Lankidetzaren zerbitzuak ematean

Partzuergoak berak, kudeaketarako sor daitekeen erakundeak edo erakundeek, eta partzuergoko kide diren erakunde publikoek, lehendakari, alkate eta ordezkarien bidez, batera jardungo dute zerbitzu hobek eskaintze aldera. Horretarako, beharrezko informazioa eta laguntza emango diote elkarri.

10. artikulua. Hirigintza arloko lankidetzaren zerbitzuak

1. Partzuergoak berak eta partzuergoko kide diren erakundeek hitzematzen dute elkarrekin lanean arituko direla aktiboki, denei eragiten dieten hirigintzako gaiak dagokienez.

Ondorio horietarako, udalek partzuergoari kontsulta egingo diote antolamenduko tresnak prestatzen edo aldatzen dituztenean, partzuergoari eragiten dioten alderdiei buruz.

2. Partzuergoko kide diren korporazioek, hirigintza proiektuak onetsi baino lehen eta, nolana ere den, partzuergoak ematen dituen zerbitzuetan eragina duten jarduketei lotutako lizentziak eman baino lehen, partzuergoaren txostena eskatu beharko dute nahitaez, proiektu edo jarduketa horiei buruz. Txostenak dioena ez da loteslea izango.

3. Bai lurzorua eta lurpea erabiltzeko egintzek, bai partzuergoak bere helburuak betetzeko egiten dituen eraikin eta instalazioek korporazioek beraiek eginez gero izango lituzketen izaera eta baldintza berak izango dituzte, eta ez dute inolako ordinarazpenik ordaindu beharko.

11. artikulua. Udal ordenantzak egokitzea

Partzuergoko kide diren eta partzuergoaren eskumeneko gaiak arautzen dituen udalen eta administrazio batzarren ordenantzak partzuergoak berak onetsitako ordenantza eta arau teknikoetara egokitu beharko dira, erakunde bakoitzaren ezaugarri bereziei kalterik egin gabe. Ondorio horretarako, toki erakundeek partzuergoak emandako xedapenak txertatuko dituzte beren ordenantzetan.

II. KAPITULUA GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANAK

12. artikulua. Gobernu organoak

1. Partzuergoaren gobernua eta administrazioa honako organo hauen esku egongo dira:

Batzar orokorra.

Gobernu batzarra.

Lurralde batzordeak.

Lehendakaria.

Lehendakariordea.

2. Zuzendaria eta kudeatzailea zuzendaritza organoa dira.

13. artikulua. Batzar orokorra

1. Partzuergoaren gobernu eta administrazio organo gorena batzar orokorra da. Batzar orokorraren eskumenak estatutu hauetan ezarritakoak eta ordenamendu juridikoan onesten diren gainerako guztiak dira.

2. Batzar orokorraren osaerari dagokionez, partzuergoko kide diren erakunde guztiek ordezkaria izango dute; botoak, berriz, ondorengo biztanle kopuruaren arabera haztatuko dira (erakundeak zerbitzua ematen dien herritarren errolda).

0-200 biztanle: boto 1.

201-400 biztanle: 2 boto.

401-700 biztanle: 3 boto.

701-1.000 biztanle: 4 boto.

1.001-2.000 biztanle: 6 boto.

2.001-3.000 biztanle: 8 boto.

3.001-4.000 biztanle: 10 boto.

4.001-5.000 biztanle: 12 boto.

5.001-7.000 biztanle: 15 boto.

7.001-9.000 biztanle: 18 boto.

9.001-11.000 biztanle: 21 boto.

11.001-14.000 biztanle: 25 boto.

14.001-17.000 biztanle: 29 boto.

17.001-20.000 biztanle: 33 boto.

20.001-24.000 biztanle: 38 boto.

24.001-28.000 biztanle: 43 boto.

28.001-32.000 biztanle: 48 boto.

Udalerriei dagokienez, boto kopurua haztatzeko xedez, aintzat hartuko da udalaren administrazioak, partzuergoaren bidez, zenbat herritarri ematen dion zerbitzua (kopuru hori ez da zertan udalerriko biztanle guztien kopuruaren berdina izan). Udal administrazioek emandako zerbitzuak giza kontsumoko uraren horniduraz edo saneamenduaz bestekoak balira, boto bat izango dute.

Haztapena bider bi egingo da, partzuergoari eskatutako zerbitzuak hark ematen dituen guztiak badira (hau da, seigarren kapituluan aipatzen diren uraren hornidura, saneamendua eta arazketa).

3. Ekitaldi bakoitzeko lehen batzar orokorra egin baino lehen, partzuergoa osatzen duten erakunde guztien errolda ofizialaren egiaztatzea eskatuko da, hain zuzen ere, dena delako ekitaldiko urtarilaren 1eko datuak jasotzen dituen, eta boto kopurua esleituko zaio erakunde bakoitzari, herritarren kopuruaren arabera, aurreko 2. atalean adierazitako moduan. Boto esleipenak ekitaldian egiten diren batzar guztietan balioko du.

4. Arabako Foru Aldundiaren boto haztatua guztizko boto kopuruaren herena (1/3) izango da beti eta, hortaz, kidetutako gainerako erakundeek (zenbat erakunde diren gorabehera) botoen beste bi herenak (2/3) izango dituzte.

14. artikulua. Partzuergoko kide diren erakundeetako ordezkarien hautaketa eta karguaren iraupena

1. Ordezkaritza organo gorenek hautatu eta indargetuko dituzte partzuergoko kide diren erakundeen ordezkariak, batzar bai orokorrekoak, bai gobernu batzarrekoak, bai lurralde batzordeetakoak. Ordezkariak ahalmena eskuordetzeko aukera dute. Nolanahi ere, hautatutako pertsonak erakundearen administrazio eta gobernu organoetako kide izan beharko du.

2. Gainera, ordezkariaren ordezkia izendatu behar da, titularrak kargua galtzen duenean, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean jarduteko.

3. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraungiko da. Horrelakoetan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean jarraituko dute behin-behinean, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak haien ordezkioak izendatu arte.

15. artikulua. Batzar orokorraren bilkurak

1. Batzar orokorraren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, bereziak eta presako bereziak.

2. Batzar orokorra urtean behin bilduko da gutxienez, lehendakariak ohiko bilkurarako deia eginda.

3. Batzar orokorrak egokiesten dituen bilkura berezi guztiak egin ahal izango ditu, lehendakariaren ekimenez edo gutzizko botoen laurdena osatzen duten batzar orokorreko kideen idatzizko eskariz.

4. Bilkuretan, zuzendari kudeatzaileak eta tokiko gobernu batzarreko kideek parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

16. artikulua. Batzar orokorrerako deia eta gai zerrenda

1. Batzarraren bilkura bakoitzerako deia behar besteko aurrerapenez egin behar da. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro behar dira, presako bilkura berezietan izan ezik, ordezkari guztiak bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten. Deian, bilkura noiz, zer ordutan eta non izango den adierazi behar da, bai lehenengo deian, bai bigarrenengan, bai eta gai zerrenda ere. Halaber, ohartarazi behar da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deia igortzen den egunetik aurrera.

2. Deia, gai zerrenda eta onetsi beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak batzar orokorreko kideei jakinarazi behar zaizkie, hala nola partzuergoa osatzen duten erakundeen bidez, haien ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda jaso behar da, eta ohartarazi behar da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahal izango da, eta hura igorri eta hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko da epeen zenbaketa.

17. artikulua. Batzar orokorraren jardunbidea

1. Batzar orokorraren bilkurak baliodunak izan daitezzen, batzar orokorra osatzen eta hitza zein botoa duten kideen erdia eta bat gehiago bertaratu behar dira lehen deian, betiere horiek gutzizko boto haztatuaren herena osatzen badute. Bigarren deialdian –lehenengo deialdia egiten denetik ordu erdira, gutxienez, egin behar da–, nahikoa izango da gutzizko boto haztatuaren herena osatzen duten kideak bertaratzea, kideen kopurua gorabehera.

Nolanahi ere, beharrezkoa da batzarreko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

2. Batzar orokorraren erabakiak, oro har, botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen boto haztatuen baturaren gehiengo soilez hartzen dira. Estatutu hauetan ezartzen den kasuetan, erabakiak gehiengo kualifikatuz hartu ahal izango dira. Kontrakoa adierazi ezean, gehiengo kualifikatua botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen boto haztatu guztien ehuneko jakin bat izango da.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan toki erakundeen kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz toki arauetan xedatzen dena aplikatuko da batzar orokorrean.

4. Partzuergoko kide diren erakundeek partzuergoarekiko finantzaketa konpromisoak edo beste zeinahi konpromiso urratuko balute, erakunde horren jarduerak urraketen arabera egokitu edo moldatu beharko lirateke eta jarduerok murriztu edo eten ere egin litezke, halako eran non, urraketaren ondorioz, kide den erakundeak ezingo lukeen beste zorrik edo obligaziorik sortu.

5. Aurrekontuko jardueren kontratazioa, hasiera edo gauzapena ez da bideratuko baldin eta partzuergoko kide diren erakundeek egin beharreko ekarpenak edo konprometitutako zenbatekoak izanik, ordainduta ez badaude edo Zuzenbidez baliozkoa den edozein bide erabiliz partzuergoaren aldeko ordainketa bermatuta ez badago.

18. artikulua. Batzar orokorraren eskumenak

a) Estatutu hauetan xedatutako eran hautaturiko gobernu batzarreko kideak eta lurralde batzordeetako kideak aldarrikatzea, bai eta partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea, kontuen batzorde bereziko kideak eta kontratazio mahaikideak hautatzea ere.

b) Aurrekontua eta aurrekontua gauzatzeko oinarriak onestea, bai eta kontu orokorra onestea ere.

c) Partzuergoan kide berriak sartzea eta horren baldintza orokorrak eta bereziak onestea. Lehendik kide zirenak irteten direnean, irtete kontua eta gainerako baldintzak onestea.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Partzuergoa desegitea.

f) Ordenantzak eta araudiak onestea. Aurrekoak gauzatzeko, batzar orokorrak erabaki ahal izango du botoa emateko eskubidea aldi baterako etetea edo erabakiak hartzeko parte hartzea etetea, baldin eta partzuergoko kide diren administrazioek edo erakundeek partzuergoarekiko betebeharrak urratzen badituzte, bereziki, partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoei eta araudi bidez ezarritako betebeharrei dagokienez. Aldi baterako etetearen ondorioa amaitu egingo da etetearen arrazoia amaitzen denean.

g) Kudeatutako zerbitzuei doazkien tarifak eta zergak ezartzea eta finkatzea.

h) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta besterentzea, eta horien gaineko transakzioa, baldin eta horien balioa aurrekontuko baliabide arrunten balioaren ehuneko hamarretik gorakoa bada.

i) Partzuergoaren inbertsio planak eta programak onestea, aldatzea edo berrikustea.

j) Kredituak judizioz kanpo aitortzea, betiere aurrekontuko zuzkidurarik egon ezean eta, ekitaldi ekonomikoaren barruan metatutako zenbatekoari dagokionez, aurrekontuko baliabide arrunten balioaren ehuneko hamarretik gorako zenbatekoa duten kreditu eragiketak hitzartzea.

k) Ur hornidura eta saneamenduko tokiko sare edo bigarren mailako sareen kudeaketa adostea hala eskatzen duten kontzeju eta udalerriekin.

l) Partzuergoak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko era onestea.

ll) Kontzeju edo udalerriei emateko beste zerbitzu batzuk onestea.

m) Partzuergoaren helburu orokorrak betetzeko eraginkortasuna indartzen duten jarduera osagarri edo eratorri guztiak egitea onestea.

- n) Partzuergoko kide ez diren erakundeekiko lankidetzak hitzarmenak onestea.
- o) Beste administrazio batzuek partzuergoari eskualdatutako edo haren esku utzitako ur arloko eskumenak onestea.
- p) Langileen plantilla eta horren aldaketak onartzea, lanpostuen zerrenda onestea eta lanpostuei atxikitako lansarien zenbatekoa finkatzea.
- q) Hitzarmen kolektiboak onestea.
- r) Egintza judizial eta administratiboak bideratzea eta partzuergoaren defendatzea batzar orokorraren eskumeneko gaietan. Horrelakoetan, beharrezko ordezkatzeko ahalmenak ematea.
- s) Batzar orokorraren eskumenak gobernu batzarraren, lehendakariaren edo zuzendari kudeatzailearen esku uztea.
- t) Ohiko bilkuren aldizkakotasuna aldatzea.
- u) Idazkaria eta kontu hartzailea izendatzea.
- v) Partzuergoaren izena aldatzea.
- w) Atxikipeneko administrazio publikoaren alde aurreko baimenarekin, aurrekontua beteazteko arau propioa onestea.
- x) Estatutuek batzar orokorrari berariaz aitortzen dizkion beste zeinahi eginkizun betetzea.
- b), d), e), f), g), i), n), o), v) eta w) ataletan jasotako gaiei buruzko erabakiak hartzeko, gutxienez, botoa emateko eskubidea duten eta batzar orokorrean bertaratu diren kideen boto haztatuen bi herenen aldeko boto kopurua beharko da. Batzar orokorrak zuzendaritzako gainerako organoen esku utzi ahal izango ditu quorum kualifikatuaren beharrik ez duten gaiak.

19. artikulua. Gobernu batzarra

1. Lurralde batzordeetako lehendakariak, partzuergoko lehendakariak eta lehendakariordeak eta Arabako Foru Aldundiak unean-unean izendatutako hiru ordezkari osatuko dute gobernu batzarra. Partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea gobernu batzarreko lehendakaria eta lehendakariordea izango dira.

Gobernu batzarreko kideren batek batzarrean ordezkari bikoitza edukiz gero, ordezkari bakoitza hautatu beharko du, eta hutsik geratzen den kargua aurreko paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz beteko da.

2. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraungiko da. Horrelakoetan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean jarraituko dute behin-behinean, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak haien ordezkariak izendatu arte.

20. artikulua. Gobernu batzarraren bilkurak

1. Gobernu batzarraren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, bereziak eta presako bereziak.

2. Gobernu batzarra lau hilean behin bilduko da gutxienez, presidenteak ohiko bilkurarako deia eginda.

3. Gobernu batzarrak egokiak dituen bilkura berezi guztiak egin ahal izango ditu, lehendakariaren ekimenez edo gutzizko botoen laurdena osatzen duten gobernu batzordeko kideen idatzizko eskariz.

4. Zuzendari kudeatzaileak bilkuretan parte hartuko du, hitzarekin baina botorik gabe.

5. Modu telematikoan egin ahal izango dira, betiere modalitate hori aukeratzen duten kideek denbora errealean parte hartuko dutela bermatzen bada.

21. artikulua. Gobernu batzarraren deia eta gai zerrenda

1. Gobernu batzarraren bilkuretarako deiak behar besteko aurrerapenez egin behar dira. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro behar dira, presako bilkura berezietan izan ezik, ordezkari guztiek bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

2. Deia, aztertuko diren gaien zerrenda eta onetsi beharreko aurreko bilkuren akten zirriborroak gobernu batzordeko kideei jakinaraziko zaizkie, udalaren eta partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda aipatu behar da, eta ohartarazi behar da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahal izango da, eta hura igorri eta hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko da epeen zenbaketa.

22. artikulua. Gobernu batzarraren jardunbidea

1. Gobernu batzarraren bilkurak baliozkoak izan daitezen, ezinbestekoa izango da kideen erdia eta bat gehiago bertan izatea. Nolanahi ere, beharrezkoa da gobernu batzarreko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

Bigarren deialdian –lehenengo deialdia egiten denetik gutxienez ordu erdira egin behar da–, nahikoa izango da guztizko boto haztatuaren herena osatzen duten kideak bertaratzea, kideen kopurua gorabehera. Nolanahi ere, beharrezkoa da gobernu batzarreko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

2. Gobernu batzordearen erabakiak, oro har, bertaratutakoen gehiengo soilez hartzen dira, horien guztien boto haztatuak batzar orokorrean daukan balioa gorabehera.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan, toki erakundeetako kide anitzeko organoen jardunbideari buruzko araudietan xedatzen dena aplikatuko zaio gobernu batzarrari.

23. artikulua. Gobernu batzarraren eskumenak

1. Honako hauek dira gobernu batzarraren eskumenak:

a) Kontratuak izapidetzeko eta esleitzeko baldintza agiriak onestea, lehendakariak dituen eskumenetan ezarritako mugen gaineratik.

b) Obren proiektuak onestea.

c) Hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateari loturiko planak, jarduketa programak eta arautegiak batzar orokorrari aurkeztea, hark onets ditzan. Salbuespenez, presako eta justifikatutako arrazoiak direla eta, halakoak onetsi ahal izango ditu, eta horren berri eman beharko du egiten den hurrengo batzar orokorrean.

d) Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onestea.

e) Aurrekontu proiektua onestea, behin betiko onetsi dezan batzar orokorrari igorri baino lehen.

f) Zerbitzuen kostuari buruzko azterketak eta horien errendimenduari buruzko ebaluazioa onestea.

g) Administrazio egintzak eta egintza judizialak egikaritzea bere eskumeneko gaietan edo, bestela, presako arrazoiak direla eta, nahiz eta bere eskumenetik kanpokoak izan. Horrelakoetan, horren berri eman beharko dio batzar orokorrari egiten den lehen bilkuran.

h) Indarrean dagoen legerian edo indarrean dauden estatutuetan batzar orokorrari berariaz esleituta ez dauden beste eskumen guztiak egikaritzea, edo batzar orokorrak beren beregi bere esku uzten dituenak.

24. artikulua. Lurralde batzordeak

1. Gobernu batzarrak eta batzar orokorrak hartu beharreko erabakiak aztertu, kontsultatu eta irizpena emateko organoak dira lurralde batzordeak.

2. Batzar orokorrean ordezkariak duten kuadrilla beste lurralde batzorde eratu daitezke, berriz partzuergoko kide badira kuadrilla bakoitzeko lurralde eremuan jarduten duten bost tokiko erakunde, gutxienez. Bestela, tokiko erakundeek hurbileneko kuadrillaren lurralde batzordean parte hartuko dute.

3. Batzordeen osaera honako hau izango da: dena delako lurralde eremuan partzuergoko kide diren toki erakunde guztietako kide bana eta Arabako Foru Aldundiko kide bat –erakundeek izendatuta eta erakundeen ordezkarietan–.

4. Kide guztien artetik, bertaratutakoen gehiengo soilez, lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dira, baina foru ordezkaria ezin izango da hautatu. Foru ordezkariak kalitateko botoa izango du berdinketa gertatuz gero. Lehendakariordeak idazkari lanak egingo ditu. Jarduneko presidentea izatea badagokio, jarduneko idazkari bat hautatuko da bilerara bertaratutakoen artean.

5. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraungiko da. Horrelakoetan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean jarraituko dute behin-behinean, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak haien ordezkariak izendatu arte.

25. artikulua. Lurralde batzordeen bilkurak

1. Lurralde batzordeen bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, bereziak eta presako bereziak.

2. Lurralde batzordeak, gutxienez, sei hilean behin batzartuko dira, lehendakariak ohiko bilkurarako deia eginda.

3. Lurralde batzordeek egokiak dituzten bilkura berezi guztiak egin ahal izango dituzte, lehendakariaren ekimenez edo guztizko botoen herena osatzen duten dena delako lurralde batzordeko kideen idatzizko eskariz.

4. Zuzendariak bilkuretan parte hartu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.

5. Batzordea osatzen duten kideen gehiengo osoz, lurralde batzordeak jardunbideari buruzko barne araudia onetsi ahal izango du.

26. artikulua. Lurralde batzordeen deia eta gai zerrenda

1. Lurralde batzordeen bilkura bakoitzerako deia behar besteko aurrerapenez egin behar da. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro behar dira, presako bilkura berezietan izan ezik, ordezkari guztiek bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

2. Deia, aztertuko diren gaien zerrenda eta onetsi beharreko aurreko bilkuren akten zirriborroak gobernu batzordeko kideei jakinaraziko zaizkie, udalaren eta partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda aipatu behar da, eta ohartarazi behar da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahal izango da, eta hura igorri eta hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko da epeen zenbaketa.

27. artikulua. Lurralde batzordeen jardunbidea

1. Lurralde batzordeen bilkurak baliozkoak izan daitezten, ezinbestekoa izango da batzordea osatzen duten kideen erdia eta bat gehiago bertan izatea. Nolanahi ere, beharrezkoa da batzordeko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

Bigarren deialdian –lehenengo deialdia egiten denetik ordu erdira egin behar da, gutxienez–, nahikoa izango da lehendakaria, idazkaria eta beste kide bat gehiago bertaratzea.

2. Lurralde batzordeen erabakiak, oro har, bertaratutako gehiengo soilez hartzen dira, horien guztien boto haztatuak batzar orokorrean daukan balioa gorabehera.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan, udalaren informazio batzordeen jardunbideari buruzko araudietan xedatzen dena aplikatuko da.

28. artikulua. Lurralde batzordeen eskumenak

Honako hauek dira lurralde batzordeen eskumenak:

1. Kuadrillaren eragin eremuan, obrak edo jarduketak egin daitezten proposatzea, bai eta obra eta jarduketan hurrenkera ezartzea ere.

2. Gobernu batzarrari mota eta era guztietako proposamenak helaraztea dena delako kuadrillan eskaintzen den zerbitzuaren prestazioari dagokionez.

3. Partzuergoko beste organo batzuek proposaturiko jarduketei buruzko iritzia ematea, jarduketa horiek zuzenean (era eskusiboan ala ez-esklusiboan) eragiten badiote lurralde batzordea kasuan-kasuan osatzen duten erakundeen lurralde eremuan ematen den zerbitzuari.

4. Partzuergoko kide diren toki erakundeen solaskideak izatea; erakundeek egindako proposamenak, kexak edo erreklamazioak aztertzea, eta txostena egin eta iritzia ematea, organo eskumendunak erabakia hartu baino lehen.

5. Gobernu batzarrean parte hartzea presidentearen bidez, zeina batzarreko kide izango baita.

6. Batzar orokorrak edo gobernu batzarrak berariaz eskuordetzen dizkienak.

29. artikulua. Partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea

1. Batzarrak hautatuko ditu, bertako kide direnen artetik, zuzeneko bozketa bidez.

2. Batzar orokorreko kide guztiak hautagaiak dira. Batzarreko ordezkari bakoitzak hautagai bakarrari emango dio botoa. Horretarako, hautatu duen hautagaiaren izen-abizenak idatzi behar harko ditu boto paperean.

3. Boto haztatuen kopuru handiena lortzen duen hautagaia izendatuko da lehendakari, baldin eta boto eskubidea duten batzar orokorreko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko badute. Legez eskatzen den gehiengoa lortzen ez bada, bozketa berriro egingo da, eta boto haztatu gehien lortzen duen hautagaia izendatuko da lehendakari. Bigarren bozketan berdinketa gertatuz gero, boto kopuru berdina jaso duten hautagaien artetik gazteena izendatuko da.

4. Lehendakariorde izendatuko da boto haztatu gehien lortu duen bigarren hautagaia. Berdinketa gertatuz gero, boto kopuru berdina jaso duten hautagaien artetik gazteena izendatuko da.

5. Edonola ere, partzuergoko kide diren erakunde desberdinetako ordezkariak izan behar dute lehendakari eta lehendakariorde. Erakunde berekoak badira, boto gehien lortu duen hurrengo hautagaia izendatuko da lehendakariorde.

6. Lehendakari eta lehendakariorde hautatuek izendapen horren arabera jardungo dute karguan, batzar orokorrean nahiz gobernu batzarrean eta kargu horiek bateraezinak izango dira lurralde batzorderen bateko lehendakariaren edo lehendakariordearen karguekin.

30. artikulua. Lehendakariaren eskumenak

Honako hauek dira lehendakariaren eskumenak:

a) Batzar orokorraren eta gobernu batzarraren bilkuretarako deia egitea, bilkuretan buru aritzea, bilkurei amaiera ematea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak kalitateko botoaren bidez ebaztea.

b) Batzar orokorraren eta gobernu batzarraren erabakiak betearaztea.

c) Partzuergoaren ordezkari ofiziala izatea; eskriturak, dokumentuak eta polizak izenpetzea, eta, behar denean, partzuergoa ordezkatu eta defendatzen duten prokuradoreei eta abokatuei botereak esleitzea.

d) Partzuergoari esleitutako obrak eta zerbitzuak zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea, horretarako, erabaki egokiak hartuta.

e) Gastuak egiteko baimena ematea eta gastuak onestea, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritako muga barruan eta, gehienez ere, aurrekontuaren ehuneko 10era arte.

f) Betebeharrak aitortzea eta ordainketak agintzea, aurrekontuaren likidazioari buruzko kontuak ematea eta erakundearen kontu orokorra prestatzea.

g) Partzuergoaren langile guztien buru nagusia izatea. Ezarritako probak gainditzen dituzten lan kontratupeko eta behin-behineko langileak izendatzea.

h) Partzuergoaren presako auziei lotutako neurriak bere kabuz onestea, bere erantzukizunpean eta batzar orokorrak edo gobernu batzarrak emandako jarraibideak betez. Horrelakoetan, hartutako neurrien berri eman behar dio batzar orokorrari edo gobernu batzarrari egiten den lehen bilkuran.

i) Egintza administratiboak eta judizialak egikaritzea bere eskumeneko gaietan edo, bestela, presako arrazoiak direla eta, Horrelakoetan, egintzen berri eman beharko dio batzar orokorrari egiten den lehen bilkuran.

j) Zerbitzuen kostuari buruzko azterketak eta errendimenduari buruzko ebaluazioa egitea, gero batzar orokorrak onar ditzan.

k) Aurrekontu proiektua prestatzea eta gobernu batzarrari helaraztea, onetsi dezan, batzar orokorrak behin betiko onetsi baino lehen.

l) Zuzendariaren edota gobernu batzarraren esku utzi ahal izango ditu bere eskumenak, a), g), h) eta i) apartatuetan jasotakoak izan ezik.

31. artikulua. Lehendakariordearen eskumenak

Lehendakariordeari dagokio lehendakariaren eginkizun guztietan jardutea hura kanpoan, gaixorik edo ezinduta dagoenean, bai eta lehendakariaren kargua hutsik dagoenean ere.

32. artikulua. Zuzendari kudeatzailea

1. Partzuergoaren batzar orokorrak izendatuko eta kargutik kenduko du zuzendari kudeatzailea, haren araubide eta lan baldintzak zehaztuko ditu eta bete beharreko eginkizunak finkatuko ditu.

2. Honako eginkizun hauek ditu zuzendariak:

a) Partzuergoaren zerbitzuak zuzendu eta horien buru jardutea.

b) Egokiesten dituen neurri guztiak proposatzea lehendakariari, partzuergoaren jardunbide ona bermatzeko eta erakundearen helburuak egoki betetzeko.

c) Partzuergoaren organoen erabakiak eta ebazpenak betearaztea eta organo horiek berariaz eskuordetzen dizkieten eginkizunak bere gain hartzea.

- d) Dagozkion ordainketak agintzea, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.
- e) Partzuergoaren gobernu organoek aztertu, jakin, igorri eta onetsi behar dituzten gai eta agiri guztiak prestatu, batu eta antolatzea.
- f) Gobernu organoen bilkura eta bileretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.
- g) Agiriak egitea eta egindako eragiketen eta zerbitzuen erregistroak eta estatistikak egiten direla zaintzea.
- h) Ekitaldia amaitzean, partzuergoaren kudeaketaren garapena azaltzen duen txostena gobernu batzarrari bidaltzea.
- i) Berariaz esleitzen edo eskuordetzen zaizkion gainerako eskumenak.

33. artikulua. Organo osagarriak

1. Partzuergoak organo osagarriak ere izan ditzake, eta batzar orokorrak onetsi behar du haien osaera. Honako hauek dira:

- a). Kontuen batzorde berezia. Batzorde horrek urteko kontuen berri emango du organo esku-dunari helarazi baino lehen, hark onets ditzan.
- b). Kontratazio mahaia edo izen baliokideren bat daukan organoaren eginkizun nagusia kontratazio organoari laguntzea da; horretarako, eskaintzak baliotsiko ditu eta eskaintzarik onuragarrienaren alde egiteko proposamena bidaliko dio. Kontratazio mahaia egindako proposamena ez da loteslea izango, baina organoak erabakia arrazoitu beharko du, mahaia egindako proposamenarekin bat ez badator.

2. Kontratazio mahaiko kideak teknikarika izango dira, batez ere. Batzordeburuaren esku utzi ahal izango da kideak izendatzea, eta ahalegina egin beharko du eraketa eta jardunbidea toki erakundetakoaren antzekoa izan dadin, baina partzuergoko langileen kopuruari, titulazioari eta espezialitateari egokituta.

III. KAPITULUA PARTZUERGOAREN OGASUNA

34. artikulua. Partzuergoaren ogasuna

1. Partzuergoaren ogasunean baliabide hauek egongo dira:

- a) Uraren ziklo integralari lotutako zerbitzuak ustiatzearen ziozko mota guztietako diru sarrerak.
- b) Partzuergoko kide diren erakundeek, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, estatuko gobernuak eta Europako gobernuak egindako ekarpenak.
- c) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntza edo dohaintzak.
- d) Kreditu eragiketen ondoriozkoak.
- e) Ondarearen ondoriozko diru sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainontzeko guztiak.
- f) Zuzenbidean bidezkoak den beste zeinahi sarrera, hala badagokio, zehapenen ordainketaren ziozkoak ere.

2. Nahitaez eskatu ahal izango dira partzuergoko kide diren eta zerbitzua jasotzen duten udalen eta kontzejuen ekarpenak, aurreko 1. apartatuan adierazitako diru sarrerak nahikoak ez badira. Horretarako, batzarrak erabakia hartu beharko du, batzar orokorrean dauden eta boto eskubidea duten kideen boto haztatuaren bi herenen aldeko botoarekin. Horrelakoetan, zerbitzua hartzailerik diren erakundeek ekarpenen zenbatekoa batzar orokorrean duten boto haztatuaren proportziozkoa izango da.

35. artikulua. Tarifak

1. Partzuergoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauaren 9. artikuluan edo hura garatzen edo ordezten duen legerian jasotakoaren esparruan jardungo du.

2. Hornikuntza eta saneamendu zerbitzuen ziozko tarifak ezartzerakoan honako hauek hartuko dira kontuan, gutxienez: lehen ezarpenaren finantza gastuak; zuzeneko zein zeharkako ustiapen, zaintza eta mantentze kostuak; etorkizunean hedapenak egiteko helburuz, erreserba bat sortzeko ezar daitezkeen kuotak, eta partzuergoaren kredituen edo partzuergoko kide diren erakundeek ekarpenen ondoriozko finantza gastuak.

36. artikulua. Tarifak ezartzeko irizpideak

Partzuergoak aplikatzen dituen tarifak finkatze aldera, justifikatutako beste arrazoirik egon ezean, honako irizpide edo printzipio hauek hartuko dira aintzat:

- a) Nahikotasuna: zerbitzuari finantza autonomia emateko moduan kalkulatu da tarifen zenbatekoa.
- b) Progresibitatea: gehien kontsumitzen duenak gehiago ordaindu beharko du.
- c) Berdintasuna: zerbitzu bera jasotzen duten partzuergoko kide diren toki erakundeetako erabiltzaileek tarifa berdina ordaindu beharko dute. Tarifa bera aplikatuko zaie partzuergoko kide diren erakunde guztiei, eskaintzen zaien zerbitzuaren arabera.
- d) Unitatea: aleko prezioa ezarriko da kontsumitzen den unitate bakoitzeko.
- e) Tarifak ezaugarri bereziko esparru edo arloetara egokituko dira.
- f) Lurralde historiko osoko biztanleen arteko lurralde oreka: tarifak Arabako herritar gehienei aplikatutakoekin parekatzen saiatuko da.

37. artikulua. Tarifak ezartzea

1. Partzuergoaren helburuetako bat da tarifek zerbitzuaren guztizko kostua estaltzea. Horiek horrela, tarifak ezarri eta mailaz maila handitu ahal izango dira partzuergoak adosten duen eguneretik aurrera.

2. Partzuergoak ematen dituen zerbitzu guztien tarifak erakundeak berak ezarriko ditu, tarifaren izaera dela eta partzuergoak haren gaineko eskumenik ez daukanean izan ezik. Horrelakoetan, partzuergoko kide diren erakundeek halabeharrez onartu beharko dituzte partzuergoak ondorio horietarako proposatzen dituen tarifak.

38. artikulua. Administrazio kudeaketaren batasuna

1. Jarduteko printzipioa da erabiltzailearekiko administrazio kudeaketaren batasuna. Faktura edo ordainagiri bakarra ezarriko da. Hala, fakturako kontzeptuak banatu ahal izango dira, bakoitzari ematen zaizkion zerbitzuen arabera.

2. Partzuergoak erabiltzaileari uraren horniduragatik aplikatuko dizkion tarifetan, honako hauek hartuko dira aintzat: lehen mailako sareko horniduraren prezioa, banaketa gastuak eta tarifetako gainerako kontzeptuak, behe horniduraren sareko galerak ere bai.

3. Partzuergoak berak zein partzuergoko kide diren erakundeek kobratu ahal izango dituzte tarifak eta harpidedunak kudeatu. Azken kasu horretan, partzuergoko kide diren erakundeek eta bertako erabiltzaileei emandako zerbitzuen zenbatekoa ordaindu beharko diote partzuergoari, batzar orokorrak ezarritako epean.

4. Arabako Foru Aldundiak, partzuergoak eskatuta eta haren mesedetan, zerga itunduetan partaidetza duten toki erakundeek dagozkien diruzko ekarpenetatik zati bat jasotzeko baimena izango du, tarifak benetan ordaintzeko helburuz, bai eta estatutu hauen 34.2 artikulua arabera ezinbestean egin behar dituen ekarpenetatik zati bat jasotzeko ere.

39. artikulua. Emaidza ekonomiko positiboan erabilera

Partzuergoaren jardueraren ondorioz sortzen diren emaitza ekonomiko positiboak ezin dira, inola ere, partzuergoa osatzen duten erakundeen artean banatu. Emaidza horiek tarifen igoera arintzeko edo tarifak txikiagotzeko baliatuko dira beti, edo, bestela, erreserbako funtsak eratzeko, hobekuntzak edota inbertsioak egiteko.

IV. KAPITULUA
ONDAREA**40. artikulua. Partzuergoaren ondarea**

1. Partzuergoaren ondarea honako hauek osatuko dute: partzuergoko erakundeek haren helburuak betetzeko transferitzen edo lagatzen dizkioten aktiboak, ondasunak eta eskubideak, eta zuzenbidearen arabera –bere funtsen kargura edo horretarako aurreikusitako edozein modalitatearen arabera– eskuratzen dituen gainerako aktiboak, ondasunak eta eskubideak.

2. Arabako Foru Aldundiak hornidura eta saneamendu sareei lotutako ondasun edo eskubide oro –partziala nahiz osoa– transferitu edo horien erabilera laga ahal izango dio partzuergoari, edo zuzenbidean horretarako balio duen beste edozein modalitate gaitu, aldez aurretik inbentario xehatua eginda; besteak beste, honako hauek: iturburuak, ur emakidak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, egindako eta egiteko fasean dauden hodi lineak, urak arazteko estazioak, kolektoreak, putzuak, biltegiak, jasotze ekipoa, linea elektrikoak eta bestelako instalazioak, baliabide materialak eta proiektuak.

3. Era berean, partzuergoko kide diren erakundeek hornidura eta saneamendu sareei lotutako ondasun edo eskubide oro –partziala nahiz osoa– transferitu edo horien erabilera laga ahal izango diote partzuergoari, aldez aurretik inbentario xehatua eginda; besteak beste, honako hauek: iturburuak, ur emakidak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, egindako eta egiteko fasean dauden hodi lineak, urak arazteko estazioak, kolektoreak, putzuak, biltegiak, jasotze ekipoa, linea elektrikoak eta bestelako instalazioak, baliabide materialak eta proiektuak.

4. Partzuergoak bere gain hartuko ditu eraketa unean hitzartutako kreditu eragiketak itzultzeko xedez sortzen diren urteko kuotak, bai eta erakundearen indarraldian hitzartzen direnak ere, horien helburua bada lehen mailako sarearen azpiegiturari dagozkion obrak finantzatzea, andelak eta urtegiak eraikitzea edo partzuergoaren helburuei lotutako beste edozein jarduketa finantzatzea, hala erabakiz gero.

V. KAPITULUA
LANGILEAK**41. artikulua. Langileak**

1. Partzuergoaren zerbitzuko langile berriak funtzionarioak edo langile lan kontratudunak izan ahal izango dira, eta partzuergoan parte hartzen duten administrazioetakoak baino ezingo dira izan. Atxikita dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute langileek, eta haien ordainsaria ezin da inola ere izan antzeko lanpostuentzat ezarritakoa baino handiagoa.

Salbuespenez, partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langilerik ezin bada hartu bete beharreko eginkizunak bereziak direlako, partzuergoa atxikita dagoen administrazioaren organo eskumendunak baimena eman ahal izango du partzuergoak langileak zuzenean kontratatzeko, aipatutako eginkizun horietan aritu daitezzen.

2. Atxikita dagoen administrazio publikoaren baimenarekin, partzuergoko langileen araubide juridikoa autonomia erkidegoaren esparruan toki erakundeetako lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmen edo akordioetan jasotakoetako bat ere izan daiteke, baldin eta hitzarmen edo akordio horien hartzaileen artean partzuergoak badaude berariaz.

42. artikulua. Idazkaria

1. Honako eginkizun hauek beteko ditu partzuergoko idazkariak:

a) Batzar orokorrean eta gobernu batzordean parte hartzea.

b) Gobernu organoen egintza eta erabaki guztien fede ematea.

c) Gobernu organoei nahitaezko lege aholkularitza ematea.

d) Partzuergoaren posta eta agiri guztiak izapidetu eta artxibatzea, aldez aurretik lehendakariak jakinda eta hala erabakita.

e) Toki araubideari buruzko legeriak toki erakundeetako idazkariaren lanpostuari ezarritako gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Idazkariaren lanpostua sortu bitartean edo indarrean dagoen legeria betez lanpostua esleitzen ez den artean, batzar orokorrak hautaturiko pertsonaren batek bete ahal izango du lanpostua.

43. artikulua. Kontu hartzailea

1. Partzuergoko kontu hartzaileak aholkularitzarekin eta kudeaketa ekonomikoarekin lotutako kontularitza eginkizunak gauzatuko ditu, batez ere, honako hauek:

a) Lehendakariari edo zuzendariari, eskumenak hari eskuordetzen zaizkionean, aholkularitza ematea aurrekontu arruntaren eta aurrekontu berezien aurreproiektuak prestatzeko.

b) Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea eta erakundearen kontularitza kudeatzea.

c) Oro har, indarrean dagoen legeriak kontu hartzaileentzat ezarritako eginkizunak betetzea.

2. Kargua betetzeko pertsona izendatzeari dagokionez, aurreko artikuluan idazkariarentzat ezarritakoa bete beharko da.

3. Pertsona bakarrak bete ahal izango ditu idazkariaren eta kontu hartzailearen eginkizunak.

VI. KAPITULUA
KIDEAK SARTZEA ETA IRTETEA

44. artikulua. Kide berriak sartzea

1. Partzuergoa eratu ondoren, erakundean sartu nahi duen zeinahi udal, kontzeju edo erakundek sartzeko eskaera egin beharko du, lehendakariari zuzenduta idazkiaren bidez. Agiri horrez gainera, udalaren edo kontzejuaren osoko bilkurak edo erakundearen antzeko organoak hartutako erabakiaren ziurtagiria igorri beharko da, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzak eta gehiengoak beteta.

2. Partzuergoaren batzar orokorrak onetsitako kide berriek egin beharreko ekarpen ekonomikoak edo ondarezkoak batzar orokorrak berak ezarriko ditu, kidea sartzea onesteko erabakian. Era berean, batzar orokorrak erabaki beharko du kide berriak zenbateko ekarpen arrunta egin beharko duen aldizka, partzuergoak ematen dituen zerbitzuak mantentzeko.

45. artikulua. Kideak borondatez irtetea

1. Partzuergoko kide diren erakundeak edozein unetan irten daitezke partzuergotik, udalaren osoko bilkurak edo kontzejuaren organo eskumendunak hala erabakita, legez bete behar diren quoruma eta gehiengoak beteta. Bestalde, udal edo kontzeju batek partzuergoak ematen dituen zerbitzuen hartzaile izateari uzten badio, partzuergotik irten beharko da.

2. Partzuergotik irteteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desegitea eragingo du. Nolanahi ere, gainerako kideek, estatutu hauetan araututakoa betez, partzuergoa ez desegitea erabaki ahal izango dute, baldin eta gutxienez bi administrazioek kide izaten jarraitzen badute, edota administrazio baten baino gehiagoren mendeko bi erakundek edo organismo publikok hala erabakitzen badute.

3. Partzuergotik irteteko eskubidea baliatzeak ez duenean partzuergoa desegitea eragiten, arau hauek aplikatuko dira:

a) Irteteko eskubidea baliatzen duenari irteteagatik zein kuota dagokion kalkulatu da. Horretarako, partzuergoa likidatuz gero legokiokoen ondare garbiaren saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, estatutueta xedatutako banaketa irizpidea kontuan hartuta.

Likidazio kuotarik zehazten ez bada, honako hauek hartuko dira kontuan: irteteko eskubidea baliatu duenak partzuergoaren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa eta urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergotik irteten den kideak ekarpenik egin ez badu, horretarako betebeharrak ez zuelako, banaketa irizpidea hau izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jaso badu.

Partzuergoak erabakiko du irteteagatik kuota nola eta zer baldintzatan ordainduko den, kuotaren emaitza positiboa bada, bai eta irteteko eskubidea baliatzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuotaren emaitza negatiboa bada.

Partzuergotik irteteko egintza irteteagatik kuota zehaztu ondoren gauzatuko da, baldin eta kuota hori positiboa bada edo, bestela, zorraren guztizko zenbatekoa ordaindu ondoren (edo ordainketa hitzartu ondoren), kuota negatiboa bada.

b) Irteteagatik kuota ezartzeko erabaki hori batzar orokorrak hartu behar du, batzar orokorrean dauden guztien boto haztatuaren gehiengo soilaren aldeko botoarekin, eta erakunde interesdunari jakinaraziko zaio ofizialki.

c) Bat etorri legeak xedatutakoarekin, baldin eta partzuergotik irteteko eskubidea baliatu duen administrazioari atxikita badago partzuergoa, partzuergoak erabaki beharko du, partzuergoan geratzen diren artean, zer administraziori edo administrazio bati lotutako edo haren mendeko zer erakunde edo organismo publikori atxikiko zaion, legean ezarritako irizpideak betez.

46. artikulua. Kideak nahitaz irtetea

1. Batzar orokorrak, botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko kideen boto haztatuaren bi herenen aldeko botoarekin, gutxienez, kide guztien erdiak botoa emanda, horretarako deitutako bilkura berezian, partzuergotik irtenarazi eta kanporatu ahal izango du egoera hauek batean dauden erakundeak:

a. Partzuergoaren interes ekonomiko eta funtzionalei edo partzuergoaren irudiari kalte oso larria eragitea, doloz edo zabarkeriaz jokatuta.

b. Ez jardutea edo aurka jardutea eta, horren ondorioz, partzuergoak lege ezarritako betebeharrak betetzeko proposamenak eta erabakiak har ditzan galaraztea.

c. Gobernu eta administrazio organoek hartutako erabakiak edo haiek agindutakoak behin eta berriz ez betetzea.

2. Nahitaz irteteari buruzko erabakia batzar orokorrari helarazi baino lehen, gobernu batzarrek, legeko kideen gehiengo osoz, nahitaz irteteko espedientea hasteko erabaki arrazoitua hartu behar du.

3. Irtetea proposatzen den erakundeari jakinarazi beharko zaio gobernu batzarraren erabakia, egokitzat jotzen dituen alegazioak edo proposamenak egin ditzan hoge eguneko epean.

4. Aipatutako epea amaituta, espediente osoa jarriko da partzuergoko kide diren erakunde guztien eskura, eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak edota proposamenak egin ahal izango dituzte.

5. Zerbitzu teknikoek espedientearen eta bertan txertaturiko idazki eta agirien berri emango dute.

6. Egindako guztiak aintzat hartuta, gobernu batzarrak erabaki beharko du espedientearekin jarraitzen duen eta, hala badagokio, batzar orokorrari helarazten dion, onetsi dezan, edo prozedura bertan behera uzten duen eta espedienteari amaiera ematen dion. Lehen erabakia baliozkoa izan dadin, legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

7. Batzar orokorrak partzuergoko kide den erakunderen bat nahitaez irteeta eta kanporatzea erabakitzen badu, –partzuergoak izandako kalte galerak konpontzeko edo haiek ordaintzeko erakunde horren aurka egikaritu ditzakeen egintzei kalterik egin gabe–, 45. artikulua 3. eta 4. apartatuetan ezarritako moduan jokatu beharko du.

VII. KAPITULUA ESTATUTUAK ALDATZEA

47. artikulua. Estatutuak aldatzea

1. Lehendakariari, partzuergoan parte hartzen duten erakundeei, gobernu batzarrari eta batzar orokorrari dagokio estatutuak aldatzeko proposamena egitea.

2. Estatutuak aldatzeko proposamenak aldaketaren arrazoiak jaso beharko ditu eta, halaber, aldatu edo txertatu nahi diren manuen testua eta indargabetu nahi direnena eta, proposamena parte hartzen duten erakundeek aurkeztuz gero, gutxienez bost erakundek eman behar diote abala, eta horiek boto haztatuen ehuneko 10 izan beharko dute gutxienez.

3. Estatutuak aldatzeko proposamena eta aipatutako edukia partzuergoko kide diren erakunde guztiei bidali behar zaie, alegazioak edota hautazko proposamenak egin ditzaten hilabeteko epean. Bestalde, epe berean, entzunaldi publiko orokorreko izapidea egin behar da, iragarkiak jarrita erakunde bakoitzaren iragarki tauletan, bai eta ALHAOn, zabalkunde handieneko egunkarietako batean eta partzuergoaren web orrian argitaratuta ere.

4. Epe hori igarota, zerbitzu teknikoek alegazio edota proposamenen inguruko txostena emango dute.

5. Aurreko apartatuetan azaldutako jarduketak gauzatuta, gobernu batzarrak bozkatu egingo du estatutuak aldatzeko proposamen zehatz baten inguruan eta batzar orokorrari helaraziko dio.

6. Estatutuak aldatzeko, botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta gutxienez bost kidek eman beharko dute aldeko botoa. Estatutuak aldatzeko erabakia horretarako deitutako bilkura berezian hartuko da.

7. Batzar orokorraren erabakiak artikulua honen 2. apartatuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

8. Estatutuak aldatzeko behin betiko erabakia hartu ondoren, estatutu berrien testua ALHAOn argitaratu behar da, eta aldaketaren berri jakinarazi behar da dagokien erregistro ofizialetan.

9. Partzuergoak legez daukan berariazko nortasun juridikoa eta berezia dela eta, partzuergoko kideen gobernu organo eskumendunek estatutuak aldatzeko proposamena ez berrestea edo gero onestea ez da inola ere izango aldaketa eraginkorra ez izateko edo indarrean ez jartzeko arrazoiak. Partzuergoko kide diren erakundeek estatutuen aldaketa onesten ez badute, erabaki beharko dute batzar orokorreko kideen gehiengo kualifikatuak erabakitakoarekin bat datozen, dagozkion administrazio edo jurisdikzio errekurtsioak aurkezten dituzten edo partzuergotik irteten diren.

VIII. KAPITULUA PARTZUERGOA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

48. artikulua. Partzuergoa desegitea

1. honako hauek dira Partzuergoa desegiteko arrazoiak:

a) Legeak hala xedatzea.

b) Partzuergoko kide diren erakunde guztiek egokitza jotzea.

c) Partzuergoko kide diren erakunde kopurua nabarmen aldatzea, aldaketa horren ondorioz, ez gertatzea, gutxienez, administrazio baten baino gehiagoren mendeko edo haiei atxikitako bi administrazio, erakunde edo organismo publiko.

d) Partzuergoak jardunean jarraitzea interes publikoaren aurkakoa izatea. Kasu horren barruan sartzen da partzuergoaren bideraezintasun teknikoa.

e) Partzuergoaren eskumenekin bat datozen eskumenak dituen beste erakunde batekin bat egitea, beste erakunde batek xurgatzea edo beste erakunde batean sartzea.

2. Aipatutako arrazoiren batengatik partzuergoa desegitea erabakiz gero, gutxienez kideen herenak horri buruzko proposamena eta txosten bat aurkeztu behar dizkio batzar orokorrari, eta bertan azaldu behar dira desegitearen alderdi juridiko, ekonomiko eta teknikoak.

3. Batzar orokorrak partzuergoa desegiteko proposamena aztertuko du horretarako deitutako bilkura berezian. Erabakia onesteko, botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta gutxienez bost kidek eman beharko dute aldeko botoa.

49. artikulua. Likidazioa

1. Partzuergoa, desegitean, likidatu eta azkendu egingo da. Nolanahi ere, partzuergoa zein xedetarako sortu zen, horiek bete izana desegiteko arrazoia izango da.

2. Partzuergoaren gobernu organo gorenak, desegiteko erabakia hartzean, likidatzaile bat izendatu behar du. Likidatzaile hori partzuergoa atxikita dagoen administrazio publikoari atxikitako edo haren mendeko pertsona, organo edo erakunde bat izango da.

3. Erakunde edo organo likidatzaileko kide izanik, enplegatu publikoari dagokion erantzukizuna zuzenean hartuko du bere gain hura izendatu zuen erakunde edo administrazio publikoak, eta erantzukizuna eskatu ahal izango dio enplegatu publikoari ofizioz, baldin eta doluz, erruz edo zabarkeria larriaz jokatu badu, administrazio legeetan ondare erantzukizunaren inguruan araututa dagoenaren arabera.

4. Likidatzaileak estatutuetan xedatutakoarekin bat etorritik kalkulatuko du partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio kuota.

5. Batzar orokorrak kuota hori kalkulatuko du, likidazioaren ondoren ateratako ondare garbiaren saldoan dagokion partaidetzaren arabera, kontuan hartuz partzuergoko kide bakoitzak haren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa nahiz urtero emandako finantzaketa. Partzuergoko kideren batek ekarpenik egin ez badu, horretarako betebeharririk ez zuelako, banaketa irizpidea hau izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jaso izanez gero.

6. Partzuergoak erabakiko du likidazio kuota nola eta zer baldintzatan ordainduko den, emaitza positiboa baldin bada.

7. Botoa emateko eskubidea duten batzar orokorreko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoaz eta, gutxienez, bost kidek aldeko botoa emanda, partzuergoko kide diren erakundeek erabaki ahal izango dute partzuergoaren aktibo eta pasibo guztiak osorik lagatzea ikuspegi juridikotik egokia den sektore publikoaren beste erakunde bati, jarduerari eusteko eta azkentzen den partzuergoaren helburuak betetzeko. Aktibo eta pasibo guztiak lagaz gero, partzuergo lagatzailea likidaziorik egin gabe azkenduko da.

8. Partzuergoa deseginez gero, partzuergoko kide ziren erakundeek ekarpen moduan utzitako ondasun, instalazio eta eskubideak partzuergoaren helburuetarako izateari utziko diote eta erakunde horien eskuetara itzuliko dira, behar bezala justifikatutako arrazoiz berezirik ez badago. Partzuergoaren gainerako ondareari dagokionez, batzar orokorrak partzuergoa desegitearen inguruan hartutako erabakian ezarritakoa bete beharko da.

Ribabellosa, 2023ko ekainaren 20a

Lehendakaria

JOSEAN GALERA CARRILLO